

Etika Publikorako Batzordea

Gaia: 6/2015

(...) JAUNAK (...) TRAMITATZEN ARI DIREN (...) AURRETIKO EGINBIDEETAN INPUTATU GISA ENTZUNA IZATEKO JASO DUEN ZITAZIOAREN GAINEAN EGIN DUEN KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA.

1.- Interesdunak, 2015eko maiatzaren 15eko dataz igorritako mezu elektronikoaren bidez, kontsulta egin zion Etika Publikorako Batzordeari, Etika eta Jokabide Kodearen 15. ataleko 5. puntuan araututakoa aintzat hartuta, (...) aurretiko eginbideetan inputatu gisa entzuna izateko jaso duen zitazioari buruzko irizpena eman dezan. Hau adierazten du idatzian:

“...lurraldearen antolaketaren eta ingurumenaren aurkako delitu baten ustezko erantzule gisa deitua izateko prozesu-egoera gerta daiteke, inputatze horren sorburuko titulu formal bakarra ni, tokiko zabortegean, eta itxura batean, zenbait gertakari gertatu ziren unean, (...) izatea da, eta hori ikusita, idatzi hau bidaltzen diot Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Erakundeen Etika Publikorako Batzordeari, modu formal batean eskatzeko nire egoerari eta nire jardun pertsonal eta instituzionalari buruzko adierazpen bat egin dezan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Erakundeen Etika eta Jokabide Kodeak arautzen duenari erreparatuta, eta, horrenbestez, organo horrek, harengana jotzen baitut errespetuz eta prebentziozko nahiz bermezko izaeraz, adierazpen bat egin dezala, kontuan izanda nire ustez garrantzizkoak diren gertakariak eta oharpenak, niri eta nire karguari buruz egoki irizten duen erabakia hartzeko eta, berebat, zehazteko, ea Kodearekiko dudan lotura urratu ote dudan jarraian azalduko diren gertakarien ondorioz, horiek baitira, nire aburuan, idatzi honen hartzaille den Batzordeak hartu behar duen erabakiaren xede...”.

2.- Kontsultaren egileak sei agiri hauek erantsi dizkio posta elektronikoko mezuari, deklaratzeko deitua izan den prozedura judizialari buruzko aurrekariak argitzeko EPBri:

- (...) zenbakiko 1. auzialdiko Instrukzio Epaitegiko probidentzia, hura deitzea agintzen duena.
- Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (...)ren 2010eko kontu orokorrari buruzko fiskalizatze-txostena.
- Estatuko Kontu Auzitegiaren Prozedura Sekzioak emandako autoa, (...)koa.
- (...) zenbakiko 1. auzialdiko instrukzio-epaitegiaren sententzia.
- Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren (...)ko sententzia, aurreko puntuan adierazitako sententziaren aurka jarritako (...) apelazio-errekurtso arrunta erabakitzeko emandakoa.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salako bigarren sekzioak emandako sententzia, (...) -koa, ezetsi egiten duena (...) -k jarritako errekurtoa, ibaiaren ibilgura isuririk ez gertatzen neurrien egikaritze subsidiarioari buruzkoa.

3.- Interesdunak, bere idatziaren 1. puntuan, erantsitako dokumentazioak biltzen dituen judiziozko eta judizioz kanpoko jardunbide ugarien testuingurua azaltzen ahalegintzen da, eta hau nabarmentzen du “... (...) udalerriko tokiko testuinguruan izan den giro politiko bereziki aztoratuaren ondorioz, udalerriko egungo gobernuak etengabe eraman du auzibidera udal-jarduna, aurreko legegintzaldietan izandako gertakariak eta hartutako erabakiak epaitzeko”. Egoitza politikoan diseinatutako estrategia batekin lotzen du bere prozesu-egoera, “polemikaren suari eustea baita haren helburu bakarra”, eta sukartsu nabarmentzen du ez dela inoiz ere “maila pertsonalean inputatua izan, (...) sozietatea izan baita Instrukzioko Epaitegiak abiarazitako aurretiazko diligentzien xede, eta (...) sozietate horren lege-ordezkaria naizen aldetik eta izaera hori dudalako deitu didate”.

4.- Kontsultaren egileak adierazten du bere gainean “estigma sozial eta politikoa” jartzeko ahaleginak porrot egin duela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Estatuko Kontu Auzitegiak emandako ebazpenen ondoren, eta orain berriro hartu dela asmo hori zigor-alorreko prozedura baten bidez, nahiz eta “Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak argitua duen auzi hori (...) sententziaren bidez; izan ere, sententzia horrek adierazten du zabortegi zaharraren ingurumen-alderdien gaineko erantzule bakarra (...) enpresa pribatua dela, eta inoiz ere ez (...) erakunde publikoa. Hori horrela dela argi geratu da, era berean, Instantziako (...) Epaitegiak eta Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak emandako bi sententzia kontradiktorian ((...) zenbakiko sententzia, (...) -ren eta (...) merkataritza-sozietatearen arteko auzi zibilari buruzkoak)”.

5.- Horren harian, hau adierazten du interesdunak: “(...) ez inputatzea eta balizko erantzukizun guztiak entitate pribatuaren gainean uztea erabaki denez, ni inputatzeko ahalegina egin da prozesu-alorreko zirrikitu bat erabiliz, (...) -ren ordezkari den pertsona fisiko moduan deitu nahi baitidate, tokiko polemika soziopolitikoaren sua iraunarazteko”. Interesdunaren aburuan, hala ere, inputatu gisa deitzen badute ere, “ez dago kausalitate-loturarik ikertutako gertakarien eta nire jardun pertsonal eta instituzionalaren artean. Kontularitzako erantzukizunik izan ez bada -amaitzen du-, are gutxiago zigor-arloko erantzukizunik”.

6.- (...) bilera honetan, Herri Administrazio eta Justizia sailburu Josu Iñaki Erkoreka Gervasio jaunaren bertaraterik gabe bildu da EPB, eta haren ordezkari aritu da, Batzordeko buru moduan, Arantza Tapia Otaegi andrea, Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasuneko sailburua, EJK-ko 16 ataleko 7.1. puntuak arautzen duena beteta.

Hori horrela, hau da EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Xede horiek betetzeko, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta antzekoei, haien jarduera publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- EJKk bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu. Hain zuzen, EPB honek haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta antzekoek zein bere xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei erantzuteko.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3. paragrafoak EJKren lehen tartekian ezarritakoaren arabera, EJK bera da organo eskuduna “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko”.

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTZEKO AURKEZTUTAKO GAIA

1.- Interesdunak EPB honi igorri dion kontsultaren arrazoia da “inputatu gisa” entzuna izateko deitua izan dela, “itxura batean lurraldearen antolamenduaren eta ingurumenaren aurkako delitu diren ekintzen” ustezko erantzule izategatik.

2.- Etika eta Jokabide Kodearen 15 atalak, zeina “eredugarritasunari eta kanpoko beste adierazpen batzuei buruzko jokabideak eta portaerak” izenekoak baita, hau arautzen du bosgarren puntuan: “kargu publikodunen bat edozein prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuz gero, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz, horren berri

emango zaio Etika Publikorako Batzordeari, kasu bakoitzean egoki irizitako gomendioak eman ditzan”.

3.- Xedapen horrek agintzen duenari lotuta, xedapen horrek azaldutako egoeraren batean gertatzen baldin bada Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikoren bat –prozesu penaletan zein administrazio-zehapenetan inputatuak izatea, karguari dagozkion egiteko publikoari lotutako gertaeren ondorioz, edota garrantzi publiko berezia duten ekintzen ondorioz–, “horren berri eman” behar dio EPB honi. Etika eta Jokabide Kodeak ez du egoera horretarako berariazko jardun-modurik arautzen; izan ere, “kasu bakoitzean egoki irizten den gomendioa” emango duela adieraztera mugatzen da. Horixe bera adierazi genuen 5/2015 erabakian, antzeko alderdi bat baino gehiago ematen baitira bi egoeren artean, eta, ondorioz, han esandakoak baliagarri izango dira egoera honi buruzkoak argitzeko. Ikusten den moduan, araua ez dago erabat osatua; izan ere, egitatezko ekintza bat zehazten du, baina ez du modu zorrotzean xedatzen zer ondorio izango duen ekintza hori egiteak. EPB honen egitekoa da, kontsulta jaso ondoren, arau horren edukia integratzea, “kasu bakoitzean” zer egin behar den erabakitzeko. Horrek esan nahi du EJK-k berariaz ematen diola eskumena Batzordeari “kasu bakoitzean” egokien irizten duen erabakia hartzeko, eta kode horren balioak eta printzipioak izango dira erabaki hori hartzean izango dituen lotura-erreferentzia orokor bakarrak.

4.- Aurreko puntuan adierazitakoari gaineratuta, EJKren 15.5 artikulua arautzen du “prozedura izapidetzean” kargua kendu baldin bazitzaion kargudunari eta “egiaztatzen bada ez duela erantzukizunik”, hau egingo dela kargua kendu zaionarekin: “berriro emango zaio [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”.

Xedapen horien lehenengo eta gainerako irakurketa eginda bestelakorik irudi dezakeen arren, agindu horrek ez du baliogabetzen gorago zirriboratu dugun interpretazioa; aitzitik, berretsi egiten du hura. EJK idatzi zutenek erabili zuten esapideak –“kargua kendu baldin bazitzaion”– argi eta garbi uzten du goi-karguari kargua kentzea, haien iritzian, aukera bat baino ez dela, hau da, EPBk eskura duen aukera-sortako beste aukera bat, eta ez, inondik ere, eskura duen aukera bakarra. Horregatik, hain justu, arautzen da, "egoera" jakin horretarako, derrigorrezkoa izango dela bidegabe karguaz gabetua izan denaren errehabilitazio publikoa egitea. Ez gainerako egoerentarako. Horren guztiaren jakitun, ondorioztatu behar da Etika eta Jokabide Kodeak berariaz prozesu penal batean edo administrazio-zehapen batean inputatutako kargudunaren kautelazko kargugabetzea bakarrik aipatzen duen arren, “kasu bakoitzean egokiena” dela irizten duenean soilik proposatu behar duela EPBk neurri hori –eta ez besterik–.

5.- Gorago adierazi dugun 5/2015 erabaki horretan argudio-oinarri zabal bat ezarri genuen egoera hauen inguruan –bereziki nabarmentzen dira 5. puntutik 12. punturako argudioak– eta hona ekarri behar da argudio-oinarri hori. Hori horrela, kontuan hartu beharrekoak dira zer hiru aukera zehaztu diren aurreko puntuetan, erabakitzeko, berariaz, prozedura penalen edo administrazio-zehapenen izapidetzearen zer unetan den bateraezina

eredugarritasun-printzipioa kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publikoen izendatzearekin, baldin eta karguduna edo izangaia ikertua izaten ari baldin bada –lehen aukerak inputazioaren unea dela adierazten du, bigarrenak ahozko judizioa abiarazten den unea dela eta hirugarren aukerak, berriz, kondena-sententzia edo inhabilitazio-zehapenaren ebazpena ematen den unea dela–, eta egokia dirudi, hasiera batean beti eta irizpide hori kasu jakin bakoitzera moldatzeko premia ekar dezaketen egoera puntualak alde batera utzita, bigarrenaren aukeraren alde egitea, hura baita hobekien eta proportzioa egokien zainduz bateratzen dituen eredugarritasun publikoaren eskakizunak eta herritarren eskubideei eta bermei izan behar zaien begirunea. Eta hori guztia egin beharko litzateke, noski, argi eta garbi utzita ez litzatekeela aurreratutako kondena bat edo gerora etorriko den kondena baten aurrerapena izango kargu publiko bat kautela-neurri moduan kargutik kentzea, baldin eta horrelakorik egin beharko balitz, auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiatzea erabakitzen duen autoa eman duelako prozedura penal batean, eta bai prebentziozko neurri profilaktiko soilak, eredugarritasunaren balioari indarra emateko erabakitakoa, eta, aldi baterako, pertsona horrek zerbitzuan diharduen erakundearen irudi ona zaintzeko hartutakoa; hori horrela, EJK-k 15 artikuluko 5. puntuak arautzen duena kontuan hartuta, “prozedura izapidetzean egiaztatzen bada kargu publikodunak ez duela erantzukizunik, berriro emango zaio kargua [...] edota dagozkion bitartekoen bidez errehabilitatuko da”

6.- Onartu berri-berria da martxoaren 30eko 3/2015 Legea, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jardura arautzekoa, eta lege horrek kargu publiko bat eskuratu edo karguan irauteko aukera ematen die prozedura penal batean edo administrazio-zehapeneko izapidetze batean sartuta dauden pertsonen, harik eta kondena-sententzia irmo bat edo inhabilitazio-zehapeneko ebazpen bat ematen den arte, baina aukera hori ez da bateragarria Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartu zuen EJKrekin, estua eta zorrotza baita. Azken kode hori eman da politikaren zentzu etikoa berrezarri eta herritarrek erakunde publikoengan eta haietan lan egiten duten kargu publikoengan izan behar duten konfiantza berreskuratzeko.

7.- Beste muturrean, erabakitzen baldin bada inputazioaren unean izango dela eredugarritasunaren printzipioa bateraezina kargu publiko bat betetzearekin edo kargu publiko baterako izendatzearekin, proportziorik gabeko jarduna izan daiteke erabaki hori hartzea –bereziki une honetan, Gorte Nagusiak Prozedura Kriminaleko Legearen aldaketa bat izapidetzen ari den garaian, zeinaren xede den, besteak beste, “legeak maiz eta terminologiaren alorrean zehatza izan gabe erabiltzen dituen esapide jakin batzuk kentzea, hala nola, inputatua eta erruztatua, hitz horiek erabiltzen baitira susmo hutsengatik ikertuak diren pertsonak, oraindik zantzu nahikorik izan gabe pertsona horri ikuspegi judizialek eta modu formalean egozteko zigorgarria den ekintzaren bat egin izana” (zioen azalpena)–, eta, neurri batean, bortxatu egin dezake lege-aldaketa horrek babestu nahi duen zigor-arloko bermeen eta prozesu-bermeen kultura.

8.- Ez diogu alferrekoa irizten erabaki honen 5. puntuan izaera orokorreaz hautatu dugun aukera kasu bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera aztertu eta moldatu behar litzatekeela azpimarratzeari; izan ere, inputazio batek epai etiko zorrotza sorraraz dezake, baldin eta delitu oso larrien ondoriozkoa baldin bada eta/edo alarma soziala eragiten duten baldintzatan gertatu baldin bada. Aitzitik, ahozko judizioa abiarazteak, kasuan kasu, ez du EPB honen gaitzespenik jasoko, baldin eta bidezko lehia politikoarekin lotutako jarduerak sorrarazi badute hura, hau da, beraien izaerarengatik, gure eskumen-esparrutik kanpokoak diren jarduerak.

9.- Aztertzen ari garen egoera honetan, argi dago EJK-ko 15. ataleko 5. puntuak arautzen dituen egitatezko elementu guztiak biltzen direla Etika Publikorako Batzorde honi egoeraren “berri emateko”. Kontsultaren egileak gure esku jarri duen dokumentazioari erreparatuta, ikusten da (...)ren zitazioa jaso duela aurtengo maiatzaren 11n, “inputatu gisa” entzuna izateko, “itxura batean lurraldearen antolamenduaren eta ingurumenaren aurkako delitu diren ekintzak egin izanaren” erantzule gisa.

Horrenbestez, EJKra atxikitako arduradun publiko baten egoera ari gara aztertzen, inputazio bat jaso duena zigor-arloko prozesu batean. Inputazio horren arrazoia ez da “haren karguari datzekion funtzio publikoak betetzearekin lotutako ekintzak” egin izana, baina bai “garrantzi publiko handiko ekintzen” ingurukoak, (...) izendatua izan baino lehen egindakoak izan daitezkeenak, (...) izan zenean, ikerketa judizialaren xede den balizko delituaren ustezko erantzule izanda.

10.- Deialdi edo zitazioaren probidentzia ordea, oraindik aurretiazko eginbideen fasean dagoen prozedura baten baitan eman da. Urrun dago, beraz, ahozko epaiketaren abiaraztea, eta kontuan izan behar da hori dela, hain justu, eredugarritasun-printzipioaren ondoriozko eskakizun etikoak betetzeko unea, hau da, une horretan komeni da kargu publikoek beraien kargua kautela-izaeraz uztea, lan egiten duten erakundearen irudia babesteko.

11.- Ez da erraza ikertutako gertakarien larritasuna aztertzea inputazioa gertatu den zigor-arloko prozesura eraman den auziaren muina aldeztetik epaitu gabe, eta, noski, ez da hori, inondik inora ere, gure egitekoa. Etika Publikorako Batzorde honek eskura dituen aurrekariek, zuzenean edo zeharka loturikoak guztiak aztertzen ari garen gaiarekin —Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren **txostena**; Estatuko Kontu Auzitegiaren prozedura-sekzioko **autoa**; (...)ren **sententzia**, amaiera ematen diona (...)ren arteko auzibide zibilari, (...) kodemandatuez lagundua azken hori; beste **sententzia** bat, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak emandakoa (...)ean, (...)L-k aurrekoaren aurka jarritako apelazio-errekurtsoa erabakitzeko, eta, finean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salaren beste **sententzia** bat (...)ean emandakoa, hondakin egonkortu eta solidotuen zabortegiko hondakinak ibai-ibilgura joatea eragozteko neurrien egikaritze subsidiarioari buruzkoa— agerian uzten dute konplexutasun juridiko handiko egoera baten aurrean gaudela, errekurtsu

eta auzibideen ibilbide luze, bihurri eta anitza izan duena izaera judizialeko eta judizioz kanpoko hainbat organotan.

12.- Kontsulta-egileak azaldu du “inputatu gisa” izan dela deitua prozedura judizialean, eta hau adierazi du prozedura horren gainean: “... (...) udalerriko tokiko testuinguruan izan den giro politiko bereziki aztoratuaren ondorioz, udalerriko egungo gobernuak etengabe eraman du auzibidera udal-jarduna, aurreko legegintzaldietan izandako gertakariak eta hartutako erabakiak epaitzeko”. Idatzian, zehazki, hari “estigma politiko eta pertsonala” ezarri nahi izan diotela salatu du, eta, horretarako, udal-korporazio horrek zenbait jarduera abiarazi dituela, bai kontu-auzitegieta –EAEkoa eta Estatukoa–, bai justizia-auzitegieta, “polemikaren suari eusteko helburu bakarrarekin”.

13.- Horren aurrean, interesdunak, bere burua defendatzeko, adierazten du ez dela inoiz “izaera pertsonalez” inputatua izan, eta nabarmentzen du “(...) sozietatea izan dela ikertua (...) Instrukzio Epaitegiak abiarazitako aurretiazko eginbideetan, eta (...) sozietatearen lege-ordezkaria naizen aldetik eta izaera hori dudalako deitu didate”.

14.- Alde batera utzita zer intentzio politiko izan dezaketen kontsultaren egileak (...) bete zuen garaian egindako kudeaketa-lanaren aurka abiatutako jarduera judizialek eta judizioz kanpokoek –gainera, ez da hori EPB honen egitekoa–, egia da orain arte gaiaren adarkatze ugarietan epaitze-lanak egin dituzten organoek ez dutela aurkitu, orain bitartean –eta gaia aztertzen ari den epaileak erabaki dezakeenaren esperoan beti–, zigor-arloko erantzukizun-eremu argirik eta zuzenean interesdunari egozgarri zaionik.

15.- Izan ere, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizatze-txostenak, txosten horren testuan adierazten diren arau-urratze puntual batzuen salbuespenarekin, hau adierazten du (...) -ren, haren tokiko erakunde autonomoen eta (...) udal-sozietate publikoan jardunari buruz: “arrazoizko modu batean bete dituzte 2010. urtean haien jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten legeak”. Bestalde, hau adierazi du Estatuko Kontu Auzitegiaren autoak: “ez da aurrera egiteko arrazoirik (...) zenbakidun itzultze-prozeduran, argi eta garbi ikusi baita kasu honetan ez dagoela kontularitza-alorreko erantzukizunik”.

16.- Gaiaren alderdi judizialari erreparatuta, ikusten da, kontsultaren egileak igorri duen dokumentazioa aztertu ondoren, auziaren muina, funtsean, arlo zibilekoa dela eta auzibide bat baino gehiago abiarazi dela haren inguruan. Guztiaren abiapuntua da alderdi aurkariek ez dutela bat egiten (...) -k 2009ko otsailaren 25ean (...) jaunarekin izenpetu zuen salerosketa-eskiriturako zenbait klausularen interpretazioan. Partzela bat eskuratzea zen salerosketa horren xedea, eta partzela horren zati bat (...) merkataritza-sozietateak sortutako altzairu-hauts inertizatuen hondakinetarako zabortegei moduan erabiltzekoa zen. Saltzaileek hartu zuten beraien gain partzela hori deskontaminatzeko kostua ordaintzeko konpromisoa, eta, horrez gainera, berariaz hartu zituzten beraien gain betebeharrak: zabortegeia ixtea, itxi ondorengo mantentze-lanak egitea, eta zabortegeiko lixibiatuak arazteko, haien

aurre-tratamendua egin eta isurtzeko lanak ordaintzeko betebeharra, 500.000 €-ko zenbatekoan zenbatetsita. Kontratuan ezarritako diru-zenbatekoa gainditu ondoren, libixiatuak araztu, haien aurre-tratamendua egin eta haiek isurtzeko lanek duten kostua nork ordaindu behar dituen zehaztean sortu da auzia, lanen kostua 979.640 €-koa baita; hau da, hasieran zenbatetsi zena baino 479.640 € garestiagoa.

17.- Prozedura zibilaren baitan eman den 1. auzialdi eta instrukzioko sententziak, (...)-ean emandakoak, onartu egin du, funtsean, (...) -ren aurka (...) -k jarritako demanda, eta demandatuak kondenatu ditu zabortegia itxi ondorengo betebeharrak guztiak eta hitzartutako betebeharrak betetzera, baina Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak emandako sententziak, (...) -koak, zati batean onartzen du alde demandatuak jarritako apelazio-errekurtsoa, eta zati batean ezeztatzen du auzialdiko epaitegiak emandako epaia. Ezin da esan auzia erabakita dagoenik, (...) -k kasazio errekurtsua jarri baitio Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak emandako sententziari. Horrenbestez, gorago adierazi dugun moduan, libixiatuak araztu, haien aurre-tratamendua egin eta haiek isurtzeko gastuen gailkostua bere gain nork hartuko duen zehaztea eta, hori zehazten den bitartean, haien kudeaketa osoa nork egingo duen erabakitzea da, funtsean, gatazkaren muina, harik eta gailkostu horren erantzulea nor den erabakitzen den arte. Auziak izaera zibila du bete-betean, eta egoera bakar bat ematen baldin bada izan dezake zigor-arloko eratorpen bat, EAEko eta Estatuko kontu-auzitegiek ez baitute arau-urratzerik hauteman kudeaketa ekonomiko-finantzarioan eta kontularitza-arloan; hau da, auzia zigor-alorrekoa bilaka daiteke baldin eta jurisdikzio-arloko auzi judiziala izapidetu bitartean aldeek bete gabe utzi badituzte legeak ingurumenarekiko arautzen dituen betebeharrak, libixiatuen arazketa, aurre-tratamendua eta isurketaren ondoriozko gailkostua nork ordaindu behar duen zehaztea baita, hain justu, auziaren xedea.

18.- Azkenik, eta hemen aztertzen ari garenari dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak (...) -ean emandako sententziak ezetsi egin du (...) merkataritza-sozietateak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak emandako agindu baten aurka jarritako errekurtsua. Errekurritutako agindu horrek errekurtsu-jartzaileari ezartzen zion, izaera subsidiarioarekin, zabortegiko libixiatuak ibai-ibilgura ez isurtzeko neurriak hartzeko betebeharra. Emandako ebazpenak ez du inondik ere esaten edo iradokitzen merkataritza-sozietateak hartu behar dituen bere gain aurkatutako administrazio-agindutik eratortzen diren ingurumen-betebeharrak; aitzitik, uneoro adierazten du ingurumen-alorrean eskudun den Administrazioak (...) -rekiko eta zabortegiaren inguruan egin dituen kontrol, jarraipen, errekerimendu, interbentzio eta zehapeneko jardura guztiak, unean-unean, betebeharrekoak ziren babes-neurriak hartzeko lege-erantzukizuna zuen pertsona juridikoarekiko planteatu direla.

19.- Hori horrela izateaz gain, kontuan hartu behar da, kontsulta-egileak bere idatzian nabarmentzen duen moduan, ez dela deklaratzera deitua izan izaera pertsonalez egindako ekintzengatik, udal-sozietate publiko baten administrazio-kontseiluko presidentea izateagatik

baizik, eta ez duela kargu hori izendapen indibidual baten ondorioz betetzen, udalerrri horretako alkate izateagatik baizik; hori horrela, ez dugu larritasun bereziko egoerarik ikusten erabaki honen 5. puntuari ezarri dugun irizpide orokorra aldatzeko.

20.- Azkenik, ezin da nabarmendu gabe utzi, kasu honetan, inputazioa ez dela gertatu eredugarritasunaren betebeharrarekin bateraezina den gizarte-alarmako egoera batean.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA

1.- Interesdunak Justizia Administrazioari laguntzen jarraitu behar du, eta unean-unean bete behar ditu (...) -k igortzen dizkion zitazioa guztiak, inputatu gisa ageri den aurretiazko eginbideen baitan.

2.- Ikusita zergatik egin den inputazioa eta aintzat hartuta erabaki honetan aztertu diren alderdiak, betetzen ari den karguari euts diezaioke kontsultaren egileak, harik eta, halakorik gertatzen baldin bada, epaile edo auzitegi eskudunak ahozko judizioa abiaraztea erabakitzeko autoa ematen duen arte.

3.- EPB honek gomendatzen du, prozedura horren baitan egiten ari diren jarduera judizialen amaieran ahozko judizioa abiaraztea erabakitzen baldin bada, kargu publikoa kautelazko izaeraz kargugabetzea, EJKren 15. ataleko 5. puntuari eta erabaki honen 5. puntuari adierazten den moduan.



Arantza Tapia Otaegi
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 1ean.